




BARREN
TOKIKOM

QVS
good value solutions



Elgoibartik Martera

Orain dela 40 urte hasi ginen Eibarren auto tailer txiki batekin: Garajes Garcia. Familia enpresa moduan hasi zenak pauso mordoa eman ditu aurrera eta gaur egun hamabi laguneko lantaldea gara 1.100 metroko lantegian. Autoak konpondu eta saltzen ditugu, eta teknologia arloan sistemarik aurreratuenak erabiltzen ditugunez, Garajes Garcia eredu da bere sektorean.

2013an Garajes Garcia Boschekin –munduko liderra automozio osagai eta automozio heziketan– bat egin eta GARAJES GARCIA BOSCH CAR SERVICE sortu zuen.

Garajes Garcia autoak saldu ere egiten ditu, bai berriak baita bigarren eskukoak edo 0 Km.koak. Bezeroei aholkuak ematen dizkie beraien beharretara egokitutako autoa eros dezaten, konfiantza eta fidagarritasuna bermatuz.

Garajes Garcia Bosch Car Service-k egunean egunean automozio arloko berritasunak gehitzen ditu. Mantentze lanak egiten ditu era eta marka guztietako autoetan, berrietan zein bigarren eskukoetan. Diagnostikorik zehatzek egiteko makina berrienak daukate eta horrek erraztu eta bermatzen du aberia mekaniko eta elektrikoak modu fidagarrian konpontzea.

Zerbitzu mekaniko eta elektronikoetan eskaintza zabala izateaz gain, renting flotaren mantenu eta segimendua ere eskaintzen du. Horrez gain, enpresentzako deskontu eta baldintza bereziak dauzka.



ZERBITZUAK

Azterketa
Mantenua
Balazta edo freno zerbitzua

Diagnostiko elektrikoa
Pneumatikoak
Karrozeria

Esekidura
Gasak eta hodiak
Loturak



garajes
García.com



Barrena kalea,11
EIBAR

2.800€



Opel Astra 2.0 DTL Elegance 16V
Motorra: Diesel
Kilometroak: 170.000
Egoera: N/A

9.900€



Citroen Berlingo 1.6 HDI 75X
Motorra: 1.6 HDI Diesel
Kilometroak: 80.000
Egoera: N/A

23.500€



Honda CR-V Lifestyle 2.2 Idtec
Motorra: 2.2 Idtec Diesel
Kilometroak: 60.000
Egoera: N/A

www.garajesgarcia.com - Erakusketa: 943 820 697 - Lantegia: 943 127 271 / 943 202 214



JAVI MUÑOZ



“Nire ingurukoen babesean hil nahiko nuke, zuri eskutik helduta”

Rafa, hiltzen ari naiz. Aste gutxiren buruan. Ikarak erabat hartu nau. Maitea, egizu negar pixka bat gehiago nahi baduzu... nahikoa? Egizu negar baina ez zaitezela izutu. Hiltzea bizitzaren parte da, eta heriotza bizi egin behar da. Heriotzarik gabeko bizitza etengabeko aharrusia litzateke.

Heriotza bizi nahiko nuke. Heriotzean duintasunagatik borrokatzea bizitzaren jabe izateko borrokatzea baita. Erabakitzeo askatasunik ezean, duintasunak ez du lekurik heriotzean zein bizitzan.

Hiltzea ez da samurra, maitea. Osasun betez izatetik heldulekurik gabe ezerezerantz irrist egiten duen jitera igarotzea latza da oso. Norberaren adimenak planeatu, gura izan, desiratu arren gorputzak traizio egiten dio: nekea, oinazea, hauskortasuna, beldurra, beldur latza... baina nire heriotza da eta bizi nahiko nuke.

90 urte ditut, jada galerak nozitzen ohitzeaz: sasoiz kaskartzan hasia, lagun minak galduak asko, duintasuna, maitatze kontuak... eta bidenabar bizitza iheska doa; dagoeneko hilik dira

nire bizitzan zehar maitatu ditudan gehientsuenak. Egizu negar baina ez zaitzala ikarak besarka. Ia 50 urte daramagu poz batean elkarrekin. Bitxia da, gero, zure alboan zoriontsu izango ez banintz nire heriotza are mingotsagoa zatekeela iruditzen zait.

Indarrez xahutua naiz. Gutxi barru ezingo diogu elkarri hitzik esan. Zeure esku eta begiek berbak ordezkia ditzatela eskatzera noakizu. Ez dut denbora gehiago nahi, bai ordea bizitza gehiago, ez nuke nire beldurrean murgiltzen uzterik gura, atzera begiratua osatzen laguntzea nahiko nuke, gogoia ikertzea, bizitakoarekin adiskidetzea, irudimenak ahalbidetua, nire bizitzan zehar lorpen ederrenen kontakizun koherentea eratzea. Rafa, heriotzaren amildegi ertzean zein maisuki sortu eta birsortzen dituen adimenak esperantza nahiz oroimen gozoak. Zoragarria da halakorik ikustea. Joateko prest naiz.

Nire ingurukoen babesean hil nahiko nuke, zuri eskutik helduta, gogoraraziz, desiratuz... azken unera arte, nire meloi-soroa, oroimen iheskorra, eta niri neroni azken hasperena oparitut.



RAFA FURNIER

“Ezin dut jasan zure ahotik gustuaren gustuz adurra nola jausten den ikustea”

Hiltzen ari zara. Eta ni, kaleko txakur baten osasunarekin, egoera honetatik etekina ateratzen saiatuko naiz. Lehenengo gauza zu bisitatu eta gure gauza guztiak lotzea izango da; beno, nireak izango diren gauzei buruz nabil. Azkenik meloiondoa izen bakarrean dagoela ziurtatuko dut, eta nahiz eta makabroa iruditu, eskrituretan izen bakarra azaltzeko ahalegin guztiak egingo ditut.

Gauza guztiak prezioa duten garai batekoa naiz, merkantziaren grabitate zentroaren gainetik hegan egiten du denak. Akaso dohakabea al naiz bizitza bati, erlazio bati, amodioari prezioa jartzeagatik? Gure bizitzak produzitzen duen prezioa al dauka edo eta seguru bateko poliza batek ematen diguna? Pikutara! Akaso uste duzue gauzei prezioa jartzen diezuen bakarrak zuek zaretela... Nire burua bizitza baten tasatzaile izendatzen dut, munduaren tasatzailea, eta inork, ez zuk, heriotzaren zorian, ez banku batek, ezta instituzio batek ez dit galaraziko berdintasu-

nean jokatzeak. Hemen duzue merkatuaren arau berdinekin jokatuko duen bat. Zure ohe ondora iristean, zarpail hutsa zinen. Ez nauzu ikusten eta ez zara ezer sinatzeko gai. Orduan, zure sinadura faltsutu dut. Ez zen oso zaila.

Benzodiacepina izeneko zerbait entxufatuta duzu besoan go-tero baten bitartez... eta zure gozamen aurpegiak enbidia ematen dit. Ezin dut jasan zure ahotik gustuaren-gustuaz adurra nola jausten den ikustea eta horrenbeste plazer zurekin partekatzea erabakitzen dut, zu deskonektatuz. Momentu batean ni naiz benzodiacepinarekin konexio intimo bat duena. A ze gustua! Zure garairik onenean ematen zenizkidan zirrarak baino askoz hobea.

Begiak itxi egiten zaizkit. Arnasa hartzea kostatzen zait. Orduan, nire bizitzan eduki dudak bake sentsaziorik handienarekin nire aititaren usaiatz gogoratu naiz, eta hasperen luze baten ondoren, betirako iluntasun batean murgiltzen naiz.



Udaberriko astenia

Zer da astenia? Nekea gehiago igartzea eta tristura handia sentitzea inongo arazoirik gabe. Ikusten dugun bezala gure gorputz fisikoa baita psikologikoa ere ikutzen ditu udaberriko asteniak.

Hauk dira sintoma arruntenak:

- ◆ Neke orokorra
- ◆ Indar falta.
- ◆ Lo egiteko zailtasuna.
- ◆ Urduritasuna.

- ◆ Suminkortasuna (*irritabilitatea*).
- ◆ Gose falta.
- ◆ Kontzentrazio falta.
- ◆ Desio sexuala jaistera.

Zer egin kontua behar bezala bideratzeko? Hemen atal ezberdinak jorratuko ditugu; alde batetik, alor fisikoak lantzen dituztenak, eta, beste-

tik, emozioak lantzen dituztenak. Alor fisikoen artean:

- ◆ Lo orduak mantentzea.
- ◆ Erlaxazio ekintzaren bat praktikatzea: yoga, pilates, taichí...
- ◆ Kirola egitea.
- ◆ Janari garbiak eta euren orduetan jatea.
- ◆ Gure egunerokotasunean konplementu naturalen bat hartzea: jalea erregina, maca, ginseng, magnesioa...

Emozioak lantzeko:

- ◆ Meditazioa praktikatzea.
- ◆ Arnasketa.
- ◆ Irakurri lagungarri den libururen bat.
- ◆ Konplementu naturalen artean bach lorak hartu, hiperiko belarra, B taldeko bitaminak, triptofanoa...

“Astenia dugunean

neke handiagoa

igartzen dugu

eta tristura

izaten dugu

inongo arazoirik gabe”



BARREN

ARGITARATZAILEA:



ELGOIBARKO IZARRA
Suskaitasunaren Espainiar

Kalebarren plaza, 2 - 20870 ELGOIBAR - 943 744 112 - barren@elgoibarkoizarra.eus
www.barren.eus
Publizitatea: 943 743 704 - barren.publi@elgoibarkoizarra.eus

BARRENEk bere gain hartzen du espazio arazoengatik iragarkiak lekuz aldatzeko eskubidea. BARRENEk ez du bere gain hartzen Iritzia, Zozoak Beleari eta eskuiztak ataletan adierazitako erantzukizunik. **KOORDINATZAILEA** Oier Narbaiza **KAZETARIAK** Ainhoa Andonegi, Asier Orbea, Ainara Argoitia, Irati Agirreazaldegia, Oier Narbaiza **HIZKUNTZA ARDURADUNA** Oier Narbaiza **PUBLIZITATEA** Leire Rubio **MAKETATZAILEA** Zaloa Arnaiz **ATARI DIGITALEKO ARLO TEKNIKOAREN ARDURADUNA** Aitor Lauzirika **ADMINISTRARIAK** Amaia Arrizabalaga, Nerea Osoro **KOLABORATZAILEAK** Garazi Ayesta, Nora Hadi, Ibon Serrano, Arkaitz Irureta, Nora Kortaberria, Nerea Gurrutxaga, Andoitz Agirregomezkorta, Abel Arriaga, Inma Mugertza, Ander Izagirre, Ana Alberdi, Eneko Iturbe, Javi Muñoz, Rafa Furnier, Eire Vila, Mikel Olaizola, Manu Sanchez, Unai Villena, Iosu Juaristi, Ainhoa Lendinez, Iñigo Lamelas, Jose Luis Azpillaga, Julen Ansola, Eider Iriando, Edurne Izagirre, Alain Ulazia, Eneiz Ezenarro, Jesus Jimenez, Mikel Artola, Iñaki Odriozola, Ander Mujika, Ander Sorraluze. **INPRIMATEGIA** Gertu Koop.E. **TIRADA** 4.860 ale **LEGE GORDAILUA** SS-1.038/92 ISSN 1138-1855

LAGUNTZAILEAK:



elgoibar
1821-2021



Gipuzkoako Foru Aldundia



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak
(Hezkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua

BARREnek ez du bere gain hartzen IRITZIA eta ESKUTITZAK ataletan adierazitako en erantzukizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dute. Ez ahaztu izen-abizenak, NANA eta telefonoa jartzea. Bidali helbide honetara: barren@elgoibarkoizarra.eus

► MORKAIKOREN EGUNA

Morkaiko Mendizale Elkartean izenean eskerrik asko Morkaikoren Egunean lagundu diguzuen guztioi:

Elgoibarko Udala, Kirol Patronatua, Udaltzaingoa, Benantzio, ibilbide inguruko baseritar guztiak, Txino, Jose Ignacio Jauregi, Jose Ignacio Laskurain eta Inaxio Garmendia (itzulitxoko gidariak), Atxutxia-maikako begiraleak, Usua taberna, Azaolako sagardoa, Insalus, Sahatzu, Muruamendiaraz gozotegia, Eroski, Eizagirre okindegia, IMH, Giauto, Metrología Sariki, Gaztetxeko kideak, Alvaro Alonso, Jai-Alai eta Iturri taberna.

Gure lantaldeaz gain zuen laguntza ezinbestekoa izan zen; Jaime Martinez, Naomi Revert, Aitor Dorado, Iñaki Etxaniz, Jabi Guallar, Joseba Zinkunegi, Patricia Navo, Asier Lizarralde, M^o Jose Estibaritz, Mariage Intxausti, eta Mikel Gabilondo.

Hurrengo urterako lanian jarraituko dogu eta hobetu ahal diranak kontuan izango ditugu! Hurrengo urtera arte!

Morkaiko Mendizale Elkartea

► ESKERRIK ASKO

Debemen Elkartek eta Elgoibarko Udalak eskerrak eman nahi dizkie Trinitateetako azoka antolatzen lagundu zuten guztiei. Batez ere hilabeteetan zehar antolakuntza bileretara etorri izan diren auzoetako alkateei, eta nola ez Armueta Harategiko Angeli ere. Baita egunean bertan dastaketa orduan laguntzera etorri ziren landa inguruneko auzoetako boluntario guztiei ere.

Debemen

► IKASTOLAREN EGUNA

Datorren ekainaren 4an, Ikastolaren eguna ospatuko da ikasturteari jai giroan bukaera emateko. Ekintzaz beteriko eguna izango da. Goizean goizetik plaza-tatik ikastolaraino kalejira izango da. Ikastolan bertan ekintza desberdinak egongo dira: haurrentzako puzgarriak eta jolasak, herri kirolak, Niala magoa, tonbolak... eta sorpresa ugari ere izango dira. Eguna biribiltzeko bazkaria eta dantza antolatu dira.

Elgoibar Ikastola

► HERRITARREN IRITZIA JASOTZEN

Mendaroko Tratu Onen Aldeko Taldea 2016ko urtarrilean hasi zen lehen pausoak ematen, hilketa matxista kopuruak larrituta, Mendaron berdinasunaren alde lan egiteko asmo eta nahiarekin.

Talde ireki eta parte-hartzailea denez, galdetegi baten bitartez herritarren iritzia jaso nahi dugu. Galdetegia bi eratarik bete daiteke:

- Online: <https://goo.gl/JSWmYj>
- Paperean: Leire Jantzi-dendan, Morroskilon eta Txirristakan utzi ditugu, oraingoz.

Galdetegia anonimoa da, herri mailan gaiari buruz dagoen ardura eta interes maila neurtzeko asmoz eginga. Beraz, alde zurretik zuen laguntza eskertu nahi dizuegu. Hartu hitza guztioi dagokigun gai honetan!

Tratu Onen Aldeko Taldea



**BIO
TERRA
2016**
13. EDIZIOA

GONBIDAPENA

Sarreraren prezioa gonbidapen gabe: 3€ (12 urte arte dohera)

Produktu ekologikoen, bioeraikuntzaren, energia berri-tagarrien eta kontsumo arduratsuaren azoka

Ekainaren 3tik Sera

- 3 pabiloi tematiko
- Hitzaldiak, tailerrak eta denontzako aktibitateak
- Osasun eta ongizate jasagarria
- Show Cooking
- Bioterraza, elikagai ekologikoekin
- Zozketak
- Haurrentzako aktibitateak!

EKO esperientzia bizi ezazu!

bioterra.ficoba.org

gonbidapen hiru mota eta azokaren sarrerak aurkeztu

P

dohainik

Ficobara, zaitoz trenean!

(Izen-Ficoba gertokio)

euskotren

ANTOLATZAILEA



FICOB A
IRUN - GIPUZKOA
www.ficoba.org

%60ko gaikako bilketa lortzeko akordioa adostu dute EAJk, EH Bilduk eta PSEk



Urtebete barru hondakinen %60 gaika biltzeko helburua adostu du Hondakinen Mahaiak, Udalean ordezkatutako hiru alderdi politikoek osatzen dutena (EAJ, PSE eta EH Bildu). Astelehenean sinatu zuten akordioa.

Hondakinen Mahaiaren helburua da Elgoibarko hondakinen kopurua ahalik eta gehien murriztea, berrerabiltzea eta birziklatzea. Zenbait bileraren ostean, ados jarri dira hiru aldeak. Urtebeteko epean %60 gaika biltzeko helburua ezarri du Mahaiak, Europako Batasunak eskatzen duen moduan. Kontuan izan beharra dago gaikako bilketa oraindik %43,28koa izan zela 2015ean.

Helburu horretara iristeko honako puntu hauek adostu ditu Hondakinen Mahaiak:

- Prebentzioan eta berrerabilpenean oinarritutako politikak sustatuko ditu Elgoibarko Udalak (bigarren eskuko azokak, tuparren erabilpena, berrerabil daitekeen baxera jai eta ospakizunetarako...).

- Auzo-konposta egiteko aukera aztertuko da.

- Edukiontzien sistema izango da bilketaren oinarria, baina bilketa eredu berri baten alde egingo du Elgoibarko Udalak: bost edukiontziak izango ditu oinarritzat (beira, kartoi eta papela, ontziak, organikoa eta errefusa).

- Hondakinen %60 gaika biltzeko helburua izango du Elgoibarko Udalak. Errefusa eta organikoaren edukiontziak modu egokian erabiltzeko, txartel pertsonalizatuak banatuko dira, Debabarreneko Mankomunitatearekin lankidetzan.

- Bilketaren emaitzen jarraipenaz arduratuko da Hondakinen Mahaia. Emaitzak baloratu ondoren, emaitzak hobetzeko neurri zuzentzaileak adostu ahal izango ditu.

- Praktika onak sustatzeko, beharrezkoak diren baliabide ekonomiko eta teknikoak erabiliko dira. Kanpaina eraginkorrak diseinatuko dituzte sistema berria ezagutzarazteko, hondakinak murrizteko, berrerabilpena bultzatzeko eta gaikako bilketa sustatzeko. Herriko eragileekin elkarlanean sentsibilizazio kanpaina egitea aurreikusi dute.

- Bide orria: Hondakinen mahaiak ezarritako helburua lortzeko beharrezkoak diren ekintzen bide-orri edo egitarau bat gauzatu du. Era berean, Hondakinaren mahaiaren sorrera eta aurreikusitako egitaraua gizarteratuko dituzte.

Arnaldo Otegi izango da EH Bilduren lehendakari gaia

Arnaldo Otegi elgoibartarra izango da EH Bildu koalizioako lehendakari gaia udazkenean egingo diren Eusko Legebiltzarrerako hauteskundeetan. EH Bilduko zuzendaritzak Sortuko idazkari nagusia proposatu zuen zerrendaburu gisa, eta koalizioaren arabera, oinarriek aukeratu dute Otegi lehendakari gaia izateko. EH Bilduko oinarriek Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako herri eta auzoetan egindako batzarretan aukeratu dute Otegi izateko Eusko Legebiltzarrerako hauteskundeetan.



Gaur eta bihar, elikagaien bilketa

Elgoibarko Gizarteratze Mahaiak janari bilketa egingo du gaur (barixakua) eta bihar. Gizarteratze Mahaia osatzen duten taldeek eta erakundeek herritarrak animatu nahi dituzte bilketan parte hartu dezaten. Gipuzkoako Elikagaien bankuak janari bilketa antolatuko du BM supermerkatuan (lehengo Nettan), 09:30etik 21:30era.

Elgoibarren jasotako jakiak Bergarara eramango dituzte, Gipuzkoako Elikagaien Bankuaren egoitza batera. Zonaldean premia duten familien artean banatuko dute han jasotakoa. Gabeziak jende askori eragiten dio. Joan den urtean Elikagai Bankuak Elgoibarko 200 bat familien artean banatu zuen janaria.



Gure industria mundura erakusten



Makina-erremintaren nazioarteko biurteko erakusketa izango da datorren astean Barakaldoko BEC erakustazokan. Mundu zabaletik etorritako bisitariak Elgoibarko makina-erremintari buruzko kabina dokumentatuak ikusi ahal izango dituzte erakustazokaren kanpoaldean. Izan ere, ekainaren 16ra arte egongo dira ikusgai gure tradizio industrialia modu didaktikoan erakusten duten zazpi kabina, Elgoibarko kaleetan hilabeteetan izandako berberak.

29. biurteko azoka honek fabrikatzaile, inportatzaile, banatzaile eta erosle nagusiak bilduko ditu. Euskal Herriko topaketa industrialik handienera, 27 estatutako 1.533 enpresa erakusketari izango dira (horietatik 11 Elgoibar eta Mendarokoak). Guztira, 2.605 produktu eramango dituzte azokara eta tamaina handiko 1.163 makina ikusi ahal izango dira martxan. Antolatzaileen arabera, azokak 36 milioi euroko eragin ekonomikoa izango du.

Azoka honek gure eskualdearentzat duen garrantzia baliatuta, hementengo industriaren inguruko zertzelada batzuk eskaini nahi dizkizuegu ale berezi honetan.



Merkatu nagusietako milaka profesionalak parte hartuko dute BIEHM azokan. Arg: Infoedita Comunicación Profesional (CC-NC-SA)

Makina-erreminta sektoreko berrikuntza teknologikoak BECen ikusgai, maiatzaren 30etik ekainaren 4ra bitartean

Astelehenean irekiko ditu atek makina-erremintaren biurteko azokak (BIEMH). Ekainaren 4ra bitartean, Barakaldoko BECeko erakustazokan sektoreko azken berrikuntza teknologikoak ikusteko aukera izango dute bisitariak. Horrez gain, negozio-aukera ere bihurtuko da azokak, merkatu nagusietako milaka profesional izango baitira bertan.

BIEMHrekin batera, ADDIT3D azoka egingo da, fabrikazio gehigarriari eta 3Dri eskainitako lehen azoka profesionala. Bestetik, WORKinn-en lehenengo edizioa egingo dute, industriari lotutako ikasleek lan-proposamen zehatzak eta prestakuntzari begirakoak topatu ahal izateko.

Smart solutions direlakoak izango dira protagonista nagusiak, 4.0 industriaren erronkak ulertzeko erantzun berriak eskaintzen dituztenak. Internet aplikatzeak duen garrantzia kontuan hartuta, sistema adimendun hiperkonektatu eta malguentzat neurriko konponbideak aurkitzea da fabrikazio adimendunaren oraina eta baita etorkizuna ere.

27 estatutako enpresak

BIEMHren garrantzia hazi egin da azken urteetan, eta azokaren nazioartekotzea sendotu egin da. Hala, 27 estatutatik etorritako enpresak izango dira BIEMHn. Enpresa horientzat, BIEMH erakusleho aparta izango da beren produkturik onenak Euskal Herriko profesionaleri erakusteko, baita Europako edo Hego Amerikako merkatuetakoei ere.

Elgoibarko bederatzi enpresa izango dira 29. edizio honetan: Unceta, Pixel Sistemas, Delteco, Cometa, Burgelu, Metrologia Sariki,

Danobat, Mantenimiento Innovador Elgoibar XXI eta Goratu. Mendarotik, berriz, beste bi enpresa joango dira: MYL eta Urkunde.

Azokak 2.605 produktu bildu arren, horietatik 1.136 makina handi martxan ikusteko aukera izango da, punta-puntako enpresen fabrikazio gehigarrien berritasunak erakutsiko dituztenak.

Nabarmendutako enpresak

Makina handien eta berritasunen artean, Elgoibarko bi enpresa nabarmendu ditu BIEMHren antolakuntzak. Alde batetik Danobaten LG-100 artezteko makina berria; gama horretako modelorik handiena da, konplexutasun handiko piezak ekoizteko sortua (mozteko erremintak, doitasun-osagai hidraulikoak eta automobilgintzako piezak, esaterako).

Beste alde batetik, Goraturen Geminis GT7/R tornu berria nabarmendu du antolakuntzak. Geminisen tornu horizontalen gamako azkeneko berrikuntza da trenbide sektorerako. Ardatza eta gupil muntatuak mekanizatze diseinatu eta sortu zuen Elgoibarko enpresak.

Berrikuntzaren Sariak

AFMk antolatutako Berrikuntzaren 12. Sariak banatuko dira BIEMH azokan. Sariak makina-erremintaren, osagaien, osagarrien eta erreminten alorretako berrikuntzak aitortuko dituzte, baita fabrikazio gehigarriari eta 4.0. industriaren kontzeptuak sartzeari loturikoak ere. Hautagaien artean estatuko hamar enpresa daude, tartean Elgoibarko DanobatGroup eta Metrologia Sariki.

29 BIEMH



DANOBATGROUP berriz ere egongo da Bilboko Exhibition Centren (BEC). Abangoardiako teknologia-aren aldeko apustua erakutsiko du punta-puntako sektoreetara zuzendutako azken garapenen bidez. Edizio honetan bere bi marken bidez (DANOBAT eta SORALUCE) makina aurreratuen azken garapenak erakutsiko ditu; zehaztasuna, fidagarritasuna eta produktibitate handia ziurtatzen duten makinak hain zuzen ere.

Eskakizun handiko mekanizazio prozesuei aurre egiteko diseinatuta daude. Ekipo guztiak kalitate maila goreneko osagaiak dituzte zurruntasuna eta oreka dinamikoa eta termikoa ziurtatzeko makinaren bizitza osoan zehar. Horrez gain, kontrol sistema aurreratuak dituzte abiadura eta zehaztasun eskakizunei aurre egiteko. Gainera, eskakizun handiko industria sektoreetara zuzendutako balio erantsi handiko osagaiak fabrikatzeko garapen aurreratuak ere ikusteko aukera izango da.

Garapen aurreratu hauek mekanizazio prozesuen esperientzia sendoaren ondorio dira, eta sektoreko enpresa liderekin landu dira emaitza garapen erabat automatizatuak, instalatu eta munduko edozein lekutan produzitzeko moduan jartzen dira.

Eskaintza zerbitzu aurreratuekin osatzen da, informazio eta komunikazio teknologia modernoetan oinarrituta disonibilitaterik altuena ziurtatuz eta programazioan, operazioan eta ekipoen mantentze lanetan formazioa eskainiz.

CONNECTING THE FUTURE, lemapean fabrikazio digitaleko garapen berritzaileenak aurkeztuko ditu DANOBAT-GROUPek, eta etorkizuneko fabrika gaur errealitate egiten duten garapen berriak ezagutaraziko ditu.

Hona hemen aipagarrienak: HMI –Human-machine interface–, Data system, Intelligent components eta Control system.



METROLOGIA SARIKI-k produktoria bideratutako metrologia adimentsua aurkeztuko du 29 BIEMH ferian. Hara hurbiltzen direnek SARIKI SOLUTIONS metrologia soluzio propioak ikusteko aukera izango dute. Edizio honetan, Sarikik industria 4.0 inguruan garatu duen SK/inspect software-a 2016ko fabrikazio aurreratuko teknologien sarrietara aurkeztu da eta bertan ikusteko aukera izango duzue.



Metrologia soluzioen artean, MACH kogame tridimensional konpaktua aplikazio hibrido batekin aurkeztuko dugu. Kontaktuzko inspektzioaz aparte, bisio teknologia integratuta edukiko du, baita zimurtasun teknologia ziklo automatiko batean, produkzio planta bat izango balitz bezala.



3D digitalizazio eskanerrak ere erakutsiko ditugu. Teknologia hauek piezak ukitu gabe beraien modelo digitala lortzen dute. Gero inspektzioa egin, alderantzizko ingeniariatza edota 3D inpresora batean fabrikatzeko aukera ematen dute. Bilbon ziklo oso bat erakutsiko dugu: piezaren modelo digitalaren kaptura hardware ezberdinekin, puntu laino eta datuen gestioa, CAD konparazioa eta Tumaker inpresora batean fabrikazioa.



“Dibertsifikazioari esker gure fakturazioari eta aktibitateari eusteko gai izan gara”

► IÑIGO UCIN DANOBATGROUP TALDEKO ZUZENDARI NAGUSIA

Bere ibilbide profesionala DanobatGroup taldeari erabat lotuta egon bada ere, Iñigo Ucinak (Azkoitia, 1960) abuztuan lagako du zuzendari nagusi kargua, Mondragon Kooperatiba Elkarteke lehendakari karguan jarduteko. Azken urteetan DanobatGroupen izandako bilakaeraren balantzea eskaini digu Ucinak. Krisi ekonomiko betearen, gogor eutsi dio talde elgoibartarrak mundu mailan. Iaz, esate baterako, fakturazio bolumenean marka guztiak hautsi zituen, 269 milioi euro fakturatzean. Sekretua, batez ere, dibertsifikatzea da Iñigo Ucinen arabera. Etor-kizunerako taldea ondo prestatuta dagoela uste du.

- OIER NARBAIZA -

♦ **Abuztuan Danobatgroup taldeko zuzendari nagusi kargua lagako duzu Mondragon Korporazioko lehendakari izateko. Zer balantze egiten duzu azken urteotan egindako lanaz?**

Nik uste dut DanobatGroupen, oro har, bilakaera ona izan duela. Horrek zerikusirik ez dauka nire lanarekin: nik uste dut talde hau denen artean irten dela. Teknologia aldetik eta lortutako erreferentzien aldetik, bilakaera ona izan da. Negozio guztiek jarraitzen dute etengabeko transformazio batean, euren produktuak merkatura egokituz. Horretan aritu gara, eta horretan segitzen dugu.

♦ **Gaur egun, zein da makina-erreminta sektorearen egoera?**

Makina-erreminta alorrean, dependzia mundu mailakoa da, ez da Espainiako edo Europako merkaturak bakarrik. Makina-erreminta, oro har, oso sektore esportatzailea da. Mundua dabilen moduaren arabera dabil sektorea.



Mundua momentu honetan ez dago inbertsioetarako momenturik onenean. Txina hor dago bere problemekin eta European gauzak ez doaz hain ondo: Alemanian inbertsio aldetik ez dabilta hain sendo. Estatu Batuek ez dute tiratzen oraindik... Zalantzak daude mundu mailan, eta oro har, ez da momentu onena makina-erremintarentzat. Halere, beti daude sektore batzuk konportamendu hobea dutenak.

♦ **2015ean 269 milioi euro fakturatu zehar, 2014an baino 23 milioi gehiago. Bolumen handia da, sektorean indartsu zabilatzela erakusten duena. Nola lortu duzue hor egotea?**

Gure estrategia beti izan da dibertsifikatzea, bai geografikoki (hau da, ez edukitzea dependenziarik merkatu batengandik, mundu mailan zabaldu salmentak), bai sektoreka arriskuak partekatzea. Gure asmoa izan da teknologikoki eboluzio fuertea ematea produktuari eta gero aplikazio bereziak egitera joan, gauza zailak egitera, ondoren gauza horiek mundu osoan saltzeko. Hori izan da gure nahia. Eta kasu batzuetan lortu dugu, eta horri esker gaude bizirik.

♦ **Krisi ekonomiko betean, batzuk hondoratu badira ere, zuek indartsu jarraitu duzue. Nolako eragina izan du nazioarteko testuinguruak DanobatGroup taldean azken urteotan?**

Krisialdi bat dagoenean, krisia ez da berdina izaten leku guztietan eta sektore guztietan. Adibide bat: petroleo sektoreak orain dela bi urte eta gaur egunean ez dauka batere antzik; orain bi urte zeharo expandituta zegoen eta gaur egunean praktikoki zeroan dago. Sektore horretan baldin bazaude, bi urtetan zure etorkizuna zeharo aldatu da. Gauza batzuk beheraka joan dira, nazio batzuk beheraka joan dira, beste batzuk ez, baina guk zorionez, lehen esan dudana dibertsifikazio horri esker, gure fakturazioari eta gure aktibitateari eusteko kapazak izan gara. Enpresa bakoitzak duen produktuen arabera, saltzen duen sektorearen arabera, edo saltzen duen nazioaren arabera, egoera zeharo ezberdina izan daiteke.

♦ **Dibertsifikazio horretan aeronautika arlo indartsu bat da zuentzako, ezta?**

Guretzat sektore printzipalena aldatu egiten dira pixka bat, egiten diren operazioen arabera. Guretzat ekipamendu ondasunena sektore oso inportantea da, gero automozioa, trenbidea, energia sektorea (eolikoa eta besteak)... Oil&gas ere historikoki oso inportantea izan da eta aeronautika ere oso inportantea da. Horiek, denak batera, ez dira erortzen. Batzuk momentu batzuetan indartsuago daude, besteak ahulago, baina hor eskaria estabiltzatu egiten da orokorrean.

“Gauzak azkar aldatzen dira. Konpetitiboki gure posizioa nahiko indartsua da”

♦ **Deslokalizazioa beharrezkoa al da aurrera egiteko?**

Guk badakigu non gauden eta guk oso garbi daukagu ahal diren lanpostu guztiak mantendu nahi ditugula eta ahal bada handitu. Horretarako, kontuan edukita gure makinak gero eta gehiago ez direla makina estandarrek, makina horiek eta linea horiek eskatzen dute bai ekipa komertzialak sartzeko bai gero postbenta zerbitzuak emateko, hurbiltasuna izatea bezereekin. Horregatik, kanpoan daukagun kontratazio gehienak horra enfokatu izateko asmoz ari gara. Zerbitzu horiek eta aktibitate komertzialak bezero estrategikoei hurbildu nahi dizkiegu. Horiek non daude? European, batipat Alemanian, eta Estatu Batuetan ere bai. Horra doa gure fokoa. Badakugu Txinan produktu berezi bat egiteko enkargua, han saltzeko, baina gure estrategia ez da kanpoan fabrikatzea kanpoan merkeago lortu daitekeelako produktu bat. Gure nahia da hemengo lanpostuak handitzea eta horretarako bezeroei hurbiltasuna ematea.

♦ **Non dituzue konpetitzaile nagusiak?**

Konpetitzaile gogorrenak eta handienak Alemanian, Suitzan eta Italian ditugu. Zorionez Txinako konpetentziarik ez daukagu. Hortik hanka egiten ibili gara eta momentuz lortu dugu.

♦ **Elgoibarren 2.000 metro koadro handituko duzue planta bat eta Bergaran 4.500 metro koadroko beste anplazio bat egingo duzue. Gehiago haztea espero duzue?**

Produktu berriek exigentzia berriak ekartzen dituzte. Makinak gero eta handiagoak dira, gero eta pisu handiagoak mugitu beharra dago, eta gero eta exigentzia handiagoa dago prezisio aldetik. Horiek azpiegitura bereziak eskatzen dituzte. Parte bat hortik doa. Beste parte bat da gero eta ingeniari gehiago ditugula eta azken urteetan makina gutxiago egiten ditugu, baina makina bakoitza askoz konplikatuagoa da, eta nabarmena da gure lanpostuak ingeniariari ari direla hazten. Ingeniaritzak bere lanpostuak bulego batzuetan behar ditu eta horiek ari gara prestatzen etorkizunean ondo ekipatuta egoteko. Ingeniaritzak eta montajeak oso hurbil egon behar dute.

♦ **Nola ikusten duzu DanobatGroupen etorkizun hurbila?**

Gaurko mundu honetan gauzak azkar aldatzen dira. Momentu batetik bestera mundua zeharo txikia egin da, eta ez dakit non zerbait pasatzen denean eragin egiten dizu. Konpetitiboki gure posizioa nahiko indartsua da eta konfiantza badakugu gure gaitasunetan etorkizunari aurre egiteko. Zer pasatzen da? Gu prest gaude aldaketei aurre egiteko.

♦ **Lan-taldeari buruz zer duzu esateko?**


Benetan uste dut oso ekipa ona daukagula. Edade aldetik jende gaztea dago. Adinaren batez bestekoa 38 bat urtekoa da. Gazteen eta nahikoa esperientzia hartuta dauden arteko konbinazioa da. Kualifikazio eta titulazio aldetik sekulako plantilla ona daukagu: %52 goi mailako ingeniariak dira; hizkuntza aldetik ere gaitasun handia dute talde-lanean. Kooperatibista onak dira. Benetan ekipa oso ona dugu.



Marterako tresnekin probatan

Elgoibarko AVS enpresaren garapen teknologiko bat aukeratu du Europako Espazio Agentziak tripulaziorik gabe Marteren satelite batera bidaliko duen misio baten proiektuan parte hartzeko. Han materiala bilduko dute, gero Lurrean, aztertzeko, unibertsorean jatorriari buruz informazioa eman baitezake. Asteroide hartako hautsa jasotzeko gailua diseinatu du, hain zuzen ere, AVSk. Lurrean azterketak egin ondoren, Bordelen, horretarako apropos egokitutako hegazkin batean aritu dira grabitaterik gabeko probak egiten. Egitasmoaren azalpenak eman dizkigu Xabi Arrillaga AVSko ingeniari elgoibartarrak. Emaizak onak izan dira. Adegik Elgoibarko enpresak egindako lana saritu du aste honetan bertan.

- IRATI AGIRREAZALDEGI -



Ricardo Diego, Xabi Arrillaga, Maite Izagirre eta Jon Osoro AVSko langile elgoibartarrak.

Arraroak direnean martetarren ideiak direla entzun izan dugu sarri. Baina oraingoan Elgoibartik Martera abiatuko den proiektu bat egin du hemengo AVS enpresak; arraroa ez baina bai puntakoa. 40 langile baino ez dituen enpresan egindako proiektu batek lurra eta Marte banatzen dituen 55 milioi kilometroko hegaldia egingo du.

Sigmako industria gunean dago Added Value Solutions (AVS) enpresa eta zientziako hainbat arlotarako tresna eta baliabideak egiten ditu "Jendeak ezagutu gaitu azken aldiaren albisteetan irten delako Marterako egiten ari garen baliabide honen berri, baina gure garapena zientzietako arlo gehiagotara dago irekita: neutroien ikerketarako instrumentuak, astronomiarako proiektuak, X izpietarako, medikuntzarako...", jakinarazi digu AVSko ingeniari Xabi Arrillagak.

Nazioartean jarduten dute batik bat eta Adegik eguazten gauean Gipuzkoako Enpresa Berriaren saria eman zion. Adegiren arabera, besteak beste, AVSren ekarpenek eragina izan dute munduko industria aitzindariaren Gipuzkoak tokia izan dezan.

Nazioartekoa da, hain zuzen ere, Elgoibar eta Marte elkartuko dituen proiektua. Lehen fasean gailu bat egin dute grabitate gutxiko asteroide edo gorputzetan hango lur azaleko partikulak batzeko. Helburua da partikulak batu, gordailu batean sartu eta atzera bueltan hona ekartzea hemen ikertzeko zein materia da goen, ze konposizio... "Orain egin dugun mekanismoak eskuilen pareko hiru pieza ditu eta hori babestuta dago. Eskuilak biratu eta barrura sartuko dute hautsa. Jendeak hobeto uler dezan etxean erratza pasatzearekin parekatu genezake". Baina bete beharreko baldintzetako bat kutsadurarik ez sortzea eta batzen dena bera ere ez kutsatzea da. Horregatik tentuz aukeratu behar dituzte erabili beharreko materialak. "Europako Espazio Agentzia (ESA) zorrotza da kontu horietan eta berak jarritako baldintzak mantentzen dira, hala ere, guk egindako hainbat proposamen ere onartu dituzte. ESA kontaktuan dago gu jasotzen ari garen informazioarekin eta beraien eskaerak misio batera bideratuta egon arren, beste misio baterako interesgarria bada hartarako probak egitea ere eskatu izan digute".

HEGALDI PARABOLIKOAK

Hasierako proba guztiak lurrian egin zituzten grabitatearekin, baina orain dela gutxi Bordelen izan dute probak beste modu batean egiteko aukera. Efektiboa den eta ondo landuta dagoen ikusteko zein parametroak doitzeko baliatu dute. ESAk antolatuta hegaldi parabolikoen kanpaina egin dute. "Ezberdina da hemen edo grabitate txikiarekin probatu, eta gailua behar den moduan dagoela ikusteko egin dira proba hauek", dio ingeniariak.

Grabitate eza ezin da beste modu batean irudikatu eta hegazkin batean, baldintza zehatzetan, lortzen da denbora konkretu batean grabitaterik ez egotea. Horiek dira hegaldi parabolikoak. AVStik zortzi lagun izan ziren Bordeleko probetan eta Xabi Arrillagak azaldu du hegazkin barruan egin zutena. "6.000 metroko altueran egon, 8.500 metrora azkar, angelu baldintza zehatzekin igo, eta gero, alderantzizko ibilbidea egiten da beherantz. Tarteko 20-23 segundutan ez dago grabitaterik. Kasu honetan astebeteko kanpaina egin zen, egunero hegaldi batekin eta hegaldi bakoitzean 31 parabola. 20 segundu igotzen, 23 grabitaterik gabe probak egiten, 20 segundu behera, minutu eta erdi atseden hartzen edo tresnak egokitzen eta beriz ere martxan. Egunaren amaieran balantzea egiten zen ESArekin ea dena ondo atera zen jakiteko eta sendagileak ere pasatzen ziren jendearen osasun egoera ikustera".

Gailu honen diseinu eta garapenean aritu diren guztiak ez dute parte hartu hegaldi parabolikoetan, baina egokitzen, arau eta baldintzak zein segurtasun kontuak betetzen bai. "Batzuek airean egon ez arren, irudietan daudenak badirudi gozatzen ari direla eta aurretik beldur pixka bat eduki arren liluratuta itzuli dira esperientzia zoragarria izan da". Airean batzuk, baina lurrian atzeko lan handia dago eta "zeresan handia du lantaldea elkarrekin ondo konpontzeak".

Probetarako ez dute nolanhiko hegazkina erabili. "Lehen Angela Merkelen hegazkin pribatua zen. Atzeko aldean 40 jarleku ditu aineratze eta lurreratze faserako eta parabolaren sasoian beste gune bat dago bigun-garria jarritz proba horiek egiteko egokituta".

Datu mordoak batu dituzte probetan bideoak, sentsoreak, eta abar erabiliz, baina

oraindik jasotako informazio hori aztertzen hasi baino ez dira egin. "Oro har ikusi ditugun emaitzak oso onak dira, baina dena aztertzen joan behar gara eta ahal bada hobetu azken emaitza oso ona izan dadin".

Informazioa simulazio bidez lortu dute eta gailuari buruzkoa gainera, baina benetako informazioa Martera iritsitakoan jasoko dute. "Materiaren konposizioak batzen du urte hauetan guztietan Marten gertatu denaren berri emateko informazioa", dio Arrillagak. Garrantzitsua izango da unibertsoreen jatorriari buruz informazio oso garrantzitsua eman baitezake.



Jendeak berehala egingo den bidaiak dela pentsatu arren, oraindik lan asko dago egiteko. Gainera, abiatutakoan hiru urte beharko ditu Marteko Fobos ilar-gira iristeko eta beste horrenbeste bueltatzeko. Hala ere, oraindik ez dakite noiz jarriko den martxan. "Sonda batean joango da eta misioaren arabera aukera ezberdinak ditu: gelditu gabe pasadan batzea da bat eta

gure gailua horretarako pentsatuta dago, beraz, oso ondo kontrolatu behar da nola gerturatu. Dena dela baldintzarik txarrenetan egiteko prestatuta dago, beraz, ondo aterako dela uste dugu".

BESTE PROIEKTUAK

Marterako proiektu honek eman dio sona AVSri, baina beste-lako lan esanguratsua ere badituzte esku artean. Esaterako, NASArekin ari dira lanean Martera bidali behar duten 20-20 roverrean. "Estazio meteorologiko bat dago han eta haizea neurtzeko mekanismo bat prestatzen ari gara". Canarias Teleskopio Handia instrumentu garrantzitsu baten zati handi ere egiten ari dira. Eta horrez gain, beste proiektu mordoak dauzkate: neutroientzako, partikulen fisikarako...

Planeta gorriaren ilargiak egin die argi AVSkoei eta aurrerantzean ere ahalik eta argien lanean jardutea da beraien asmoa satelitea zientzia gaitara bideratuta.

***"Gure gailuarekin jasoko
dugun materiaren
konposizioak batzen du urte
hauetan guztietan Marten
gertatu denaren berri
emateko informazioa"***



Informazio eta komunikazio teknologiak industrian txertatzeko 4.0 Industria egitasmoa aurkeztu du Aldundiak Elgoibarren

Gipuzkoako Foru Aldundiak 3,1 milioi euro bideratuko ditu 4.0 Industria egitasmora. Aldundiak lurraldeko enpresa guztiei dei egin die, bai handiei, bai txikiei, egitasmo honekin bat egin dezaten. Egitasmo honen bidez etorkizuneko industria eredua finkatzeko lagungarri izango dela uste dute Aldundiko arduradunek.

Informazio eta komunikazio teknologiak industrian txertatzea da egitasmoaren helburua, horren bidez etorkizuneko industria eredua finkatzeko lagungarri izan daitekeena, foru arduradunen iritziz.

Egitasmoaren aurkezpena Elgoibarko Danobaten egin zuten astelehenean. Markel Olano diputatu nagusia eta Ainhua Aizpuru Sustapen Ekonomikoko diputatua bertaratu ziren.

Markel Olanok adierazi zuen egitasmoa, batez ere, enpresa txikiengan pertsatuta dagoela, eta egitasmoaren garrantzia nabarmendu zuen. "Nazioar-



4.0 Industria egitasmoaren aurkezpeneko irudia

teko aditu asko dira programa hau industriagintzako laugarren iraultza gisa hartzen dutenak", adierazi zuen diputatu nagusiak.

"Industria eredu berri hau izango da ekoizpen industrialeko produktuei bene-

tako balio erantsia ekarriko diena, gainontzekoetatik bereiziko dituen", azaldu zuen Olanok egitasmoaren aurkezpenean. "Eta hau izango da etorkizuneko industria eredua finkatzen lagunduko diguna", gaineratu zuen.

Makina-erreminta sektorean euskararen erabilera sustatzeko pausoak emango ditu IMHk



Elgoibarko Udalak 3.500 euro emango dizkio IMHri Goazen proiektuaren jardura finantzatzen laguntzeko. Horrez gain, ikastetxeak 2.500 euro ere jasoko ditu lantokietan euskarazko praktikak sustatzeko. Martitzenean sinatutako hitzarmenaren bidez, ikastetxeak euskararen erabilera sustatuko du, makina-erreminta sektorean aurrerapausoak emango ditu sektorean eragiteko, 30+10 mintegia antolatuko du eta ikasleek lantokiko praktikak euskaraz egiteko urratsak emango ditu.



Juanjo Larrañaga Zabaleta

2016ko maiatzaren 18an hil zen, 65 urte zituela.
Haren oroimenez domekan, maiatzaren 29an, meza izango da,
12:00etan Mendaroko Azpilgoetako eliz-parrokian.
Joango zaretenoi aldez aurretik eskerrak.



Marcelina Goizeru Sorazu

Agustin Atorrasagastiren alarguna

2016ko maiatzaren 24an hil zen, 94 urte zituela.
Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak,
bai eta hileta elizkizunetara agertu izana ere.



V. URTEURRENA


Begoña Muguruza Cendoya

"Agarretxiki"

2011ko maiatzaren 28an hil zen, 77 urte zituela. Haren oroimenez
V. urteurreneko meza izango da, zapatuan, maiatzak 28,
arratsaldeko 19:00etan Elgoibarko Bartolome Deunaren
eliz-parrokian. Joango zaretenoi aldez aurretik eskerrak.

**Denborak samiña arintzen omen du,
baina zure oroitzapen goxoa
ezerk ez du lausotuko.**

Etxekoak



Metal gaua eta argazki erakusketa Sinuoserren eskutik datorren asteburuan



Sinuose elkarteak Hellgoibarko IV. Metal gaua antolatu du datorren astebururako. Ekainaren 3an, 23:00etan hasita kontzertua eskainiko dute Maalako parkean Legen Beltza eta In Thousand Lakes taldeek. Azkoitia eta Azpeitiako Legen Beltza metal taldeak, bost urtez kontzerturik eman gabe egon ostean, orain dela gutxi Azpeitian jo zuen eta gurean entzuteko aukera izango da orain. In The Thousand Lakes Billboko laukoteak death metal melodiko doinuak eskainiko ditu. Bestalde, ekainaren 3tik 10era bitartean, Unai Endemaño argazkilaria *Disparando a 33 rpm* erakusketa jarriko dute ikusgai kultur etxeko sotoan 18:30etik 20:30era bitartean. Zuri-beltzeko argazkiak zuzeneko kontzertuetan ateratakoak dira emanaldien indarra adierazten dutenak.

Debabarreneko Orkestra Sinfonikoa Elgoibarren gaur aurkeztuko dute



Eibarren estreinako kontzertua egin ondoren, Elgoibarren aurkeztuko dute gaur Debabarreneko Orkestra Sinfonikoa Herriko Antzokian 20:30ean. 35 partaide ditu orkestrak eta erdia elgoibartarra da. Jose Miguel Laskurain zuzendariaren esanetara besteak beste filmetako doinuak eskainiko dituzte. Gainera, lau ikusentzulek kontzertuko pieza bana musikarien artean eserita gozatzeko aukera izango dute zuzendariaren keinuak, musikarien erreakzioak... bertatik bertara biziz.

Artile tailerra hilabete bukaerako azokan

Bihar, zapatua, hilabete bukaerako ohiko azoka izango da Elgoibarren. Goizean barrena baserriko produktuak egongo dira salgai Kalebarren plazan eta leku berean Elgoibarko Izarrak txosna jarriko du bertako produktuak jan ahal izateko. Goiza girozte aldera kale kantariak ere batetik bestera ibiliko dira eta umeentzako artile tailerra ere izango da 12:00etan hasita. Eguerditik arratsaldera, berriz, ganadu erakusketa jarriko dute Aita Agirren.

Pirritx, Porrotx eta Marimototsen 'Amalur' Mendaron

Amalur ikuskizuna eskainiko dute Pirritx, Porrotx eta Marimototsek ekainaren 3an 18:30ean Ikastolako jolastokian. Pailazoak baserrira joango dira baserritar izateko ikasten ari den Marimototsengana eta baserriko lanetan lagunduko diote denek han bizi den Ilargiri. Zeruaren eta lurraren bidez besteak beste baserritarra, eman eta hartu, jakintsua eta eskuzabala dela erakutsi nahi dute ikuskizun honekin kantuen, jolasen eta hitzen bidez.

Hiru elgoibartar Aurreku Txapelketako finalean


Zapatuan jokatu zen Erreterian Aurreku Txapelketako finala eta Inazio Bereziartua Musika eta Dantza Eskolako hiru dantzarik parte hartu zuten. 7 eta 11 urte artekoetan Aimar Almortza 14. izan zen eta Markel Goenaga 7. 11 eta 15 urte artekoetan berriz, Gaizka Urangak 5. postua lortu zuen. Dantzariok atsedean hartuko dute eta 15 urtetik gorakoak udan prestatzen ariko irail eta urriko, Zarauzko eta Pasaiako txapelketetarako eta Donostiako erakustaldirako.

Iban Murua eta Maite Maiora gailendu ziren Aizkorriko Kilometro Bertikalean



Euskal Herriko Lasterketa Bertikalen Kopako bigarren proba jokatu zuten maiatzaren 20an, Zegama-Aizkorriko 2. Kilometro Bertikala. Gizezkoetan Iban Murua elgoibartarrak egin zuen denborarik onena (36:43). Oriol Cardona (36:47) eta Agusti Roc (38:02) kataluniarrak sailkatu ziren bigarren eta hirugarren postuetan. Irigo Lariz elgoibartarra bosgarren sailkatu zen 38:16ko denborarekin. Emakumezkoetan Maite Maiora mendararra izan zen jaun eta jabe. 45 minutu eta 43 segundoan egin zuen igoera, Vanesa Ortigari (48:07) eta Virginia Perezi (51:26) aurea hartuz. Ainhoa Lendinez elgoibartarra ere aurrekoen lehia ibili zen eta bosgarren postua lortu zuen, 52:07ko denborarekin. .

Gabaz taldeak eskubaloiko Final Fourra jokatu du Muskizen



Senior gizezkoen Gabaz taldeak Bigarren Nazional Mailara igotzeko Final Fourra jokatu du asteburu honetan Muskizen. Elgoibartarrekin batera, Haritza Eibar, Muskiz eta Donibane taldeek hartuko dute parte. Elgoibartarrek Pasaiaiko Donibaneren aurka jokatu dute finalaurrekoa. Finala domekan jokatu da 12:15ean, Muskizeko Udala Kiroldegian. Sanloko beste hiru taldek Gipuzkoako Kopako finalak jokatu dituzte zapatu honetan. Pneumax eta Deca taldeek Olaizaga kiroldegian jokatu dute, Ereintzaren aurka Pneumaxek eta Zarautzen aurka Decak (ikus kirol agendan). Tecnifuellek, berriz, Bera Beraren aurka jokatu du Donostian.

CD Elgoibarrek paella jana egingo du

Futbol denboraldia amaitzeko paella jana antolatu du CD Elgoibarrek biharko, Malako parkean (14:30). Bazkalostean denboraldiko talde eta jokalaririk onenen sariak banatu dituzte. Kirol lehiari dagokionez, Liga txapelketa bigarren postuan amaitu duen ohorezko infantilen taldeak Kostkas taldearen aurka jokatu du zapatu honetan, eta partida irabaziz gero, Euskadiko Txapelketan jokatzeko sailkatuko da.

Emaitzak

FUTBOLA

Haundi 2 – Euskalduna 0 (Oho. erreg.)
Lagun Onak 3 – Elgoibar 2 (Oho. inf.)
Elgoibar 3 – Internacional 0 (Infantil Txiki)

ESKUBALOIA

Eibar 15 – Lauko 32 (Senior emak.)
Gabaz 38 – Mungia 33 (Senior giz.)
Usurbil 31 – Tecnifuelle 22 (Jub. nesk.)
Cometel 16 – Pulpo 20 (Inf nesk. Gipuzkoako Ligako finala)
H. Txariduna 38 – Egia 17 (Inf mut.)
Hádzbol Sant Quirze 33 – Pneumax Elg. 28 (Kad. nesk. Espainiako Txapelketa)
BM Algiros 29 – Pneumax 29 (Kad. nesk. Espainiako Txapelketa)
Hádzbol Sant Quirze 33 – Pneumax 28 (Kad. nesk. Espainiako Txapelketa)
C. Salesianos 32 – Deca Elg. 27 (Kad. mut. Espainiako Txapelketa)
Seis Do Nadal Coia 35 – Deca 32 (Kad. mut. Espainiako Txapelketa)
Deca 31 – Academia Alcobendas 32 (Kad. mut. Espainiako Txapelketa)

Agenda

ESKUBALOIA (Olaizaga kiroldegian)

Zapatua, 28
16:30 Pneumax – Ereintza (Kad. nesk. Kopako finala)
18:00 Deca – Zarautz (Kad. mt. Kopako fin.)

Iban 2-dean erronka

Iban Fernandez elgoibartarrak asteburu honetan egingo du Iban 2-dean izeneko erronka solidarioa. Barixakuan irtengo da Kalegoen plazatik, 17:00etan, eta Elgoibarriri mendiz mendi lau itzuli jarraian eman nahi dizkio, 27 orduko epean. Hala, gauzak ondo bidean, zapatuan, 20:00ak inguruan amaituko luke proba plazan bertan.

Igeriketa Eguna, zapatuan

Elgoibarko Igeriketa Taldeak antolatuta, Igeriketa Eguna egingo dute zapatuan (maiatzak 28), Olaizaga Kiroldegian. 10:00etatik aurrera 6 eta 14 urte arteko igerilariek hartuko dute parte. Txikienek hainbat jolas egin ahal izango dituzte; eta, nagusientzat, berriz, zenbait igeriketa proba izango dira.

LANA.....
Eskaerak

Adinekoak edo umeak zaintzen zein garbiketan egingo nuke lan. Paperak behar bezala dauzkat.
625 857 164

Elgoibartarra adinekoak zaindu, paseatu, janaria prestatu eta etxeko lanak egiteko prest. Esperientzia eta erreferentzia onak. 660 511 781 edo 943 742 330

Adinekoak zaintzen egingo nuke lan. Esperientzia eta erreferentziak dauzkat, baita paperak behar bezala ere.
616 328 060

20 urteko ikasle euskaldunak umeak zainduko litzuke uztailean.
608 989 294

Garbiketa lanetan, umeak eta adinekoak zaintzen lan egingo nuke. Orduka edo interna. 678 112 785

Adinekoak edo haurrak zainduko nitzuke, edo etxeak garbitzen arituko nintzateke.
631 418 130

Adinekoak edo umeak zaintzen zein garbiketan egingo nuke lan. Interna. 602 193 095 (Miriam)

Adinekoak edo umeak zaintzen zein garbiketan egingo nuke lan. Interna. 612 216 458 (Selena)

Garbiketak eta etxeko lanak egiteko eta pertsona nagusiak zaintzeko prest. 631 790 555

Adinekoak zaintzen lan egingo nuke. Interna edo orduka. 631 133 431/632 825 580

Adinekoak edo umeak zaintzeko zein garbiketa lanak egiteko prest. Orduka zein interna. Erreferentziak dauzkat. 632 871550

Nagusiak zaintzen edo sukaldari laguntzaile egingo nuke lan. 677 259 560

Nagusiak zaintzen edo sukaldari laguntzaile egingo nuke lan. 666 380 843

Nagusiak zaintzen ditut, orduka. Garbiketa lanetan ere aritzen naiz. 632 229 972

Adinekoak zaintzen, sukaldari laguntzaile edo portal garbiketan egingo nuke lan. Interna edo orduka. 631 132 553

Eskaintzak
Esperientziadun sukaldaria behar da Elgoibarko taberna batean lan egiteko. Bidalai Kurrikuluma argazkiarekin helbide honetara: sukaldaribat@gmail.com

ETXEBIZITZAK.....
Alokairua
Etxebizitza hartuko nuke alokairuan Elgoibarren.
632 767 696

Etxebizitza hartuko nuke alokairuan Elgoibarren. Logela bat edo bikoa. 602 490 595

LOKALAK.....
Salgai
Urazandiko harategia salgai edo alokairuan dut, jubilarzioa dela-eta.
943 740 884

GARAJEAK.....
Alokairua
Bi autorentzako garaje marraduna alokagai Pista Beltzean. 75 €ko alokairua.

Salgai
Debako hondartzan garaje itxia salgai. Lehenengo solairuan. 655 712 021

KINTADAK.....
1954an jaiotakoek kintada ekainaren 11n. 13:00etan harrera eta luntxa Usoa tabernan. Bazkaria Sigman. 50 €. Maiatzaren 27an baino lehen. Laboral Kutxa 3035 0007 21 0071056285

1949an jaiotakoek bazkaria ekainaren 11n. 12:30: Argazkia San Bartolome elizako arkupeetan. Jarraian, luncha Ibai Ondo erretegian. 14:30: bazkaria Sigma Jatetxean. Izena eman ekainaren 8a baino lehen. 50 euro sartu La Caixan: ES58 4168 76 2100312515

BESTELAKOAK.....
Eratzuna galdu dut. "Iker 2011-05-20" jartzen du barruan. Balio sentimental handia dauka. 677 110 531

1998 urteko campingcara. 204.000 km. Turbo Diesel 2.500 cm3. 110 CV. 5,50 m. luzeera. Toldoa. Aire girotua. Bi txirrindarientzako euskarria. 3 lagunentzako oheak. 5 toki homologatu. IAT-ITV 2016ko uztaile. Asegurua, 2017/03/12. Garajean gordea. 15.000€. 688605253 (Ibon).

LAN-DEIALDIA

- ◆ Elgoibarko enpresa batek CNC-Fanuc Tornu programatzailea behar du.
- ◆ Gutxieneko esperientzia: 3 urte.
- ◆ 40 urtetik gorako langilea.
- ◆ Ez aurkeztu baldintza hauek betetzen ez dituztenak.

Deitu: 652 777 031 (Jesus)



P. M. Urruzuno kalea, 6 behea - Elgoibar
943 743 140 - rosapf@telefonica.net

Nire komunitatean, jabeen azken batzarrean, hodiak garbitzea erabaki genuen, baita garbiketa hori egiteko beharrezkoak diren erregistroak jartzea. Lokal baten jabeak ezezkoa eman dio bere lokaleko sabaian erregistroa ipintzeari esanez, egitura aldatuko lukeela. Ez dio ezezkoa eman hodiak garbitzeari beharrezko den bakoitzean sabaia ireki behar bada, baina lan horiek egiteko igeltsu eta pintura ordainduz gero beti ere. Jakin nahi nuke ea derrigortu dezakegun lokalaren jabea bere lokal barruan batzarrean erabakitako obrak egitera.

Interes orokorreko kasu baten aurrean gaude eta jasan behar duenak zor moduan hartu behar du. Legeak dio jabeak derrigortuta daudela beraien etxebizitza edo lokaletan eraikin zerbitzuak exijitutako konponketak onartzera eta bertan interes orokorretako zerbitzu komunetarako ezinbesteko zorrak baimentzera. Beti ere eskubidea izanik eragindako kalte eta galerak komunitateak ordaintzeko. Etxe zein lokal baten jabe oro derrigortuta dago bere jabetzara sartzen lagatzeraz beharrezko konponketak egiteko.

Akordio hauek onartzeko beharrezkoa da jabe guztien hiru bostenen baiezko bozka, partehartze kuoten hiru bostenen ordezkari dena. Erregistroak jartzeko akordioa gehiengo honen bidez eginez gero, jabea derrigortuta dago interes orokorreko zor komun gisa onartzera.

AHOLKUA: Lokalaren jabeak ezezkoa emanaz gero, komunitateak gaia epailearen aurrean jartzea beste biderik ez du izango akordioa bete dezan.

ROSA Mª PINTADO: Etxaldean Administraziorako-Gradu ikasketen arduraduna Alcalá de Henareseko Unibertsitatean, eta Gipuzkoa, Bizkai eta Arabako, Errioxako eta Kantabriako ikastetxeetan. Zuzenbidean lizentziatua. Kolegiatu zenbakia: 749

administradores Creando Valor de Empleo en Administración Pública



ZORIONAK ZURI



Zorionak, **Jare**, asteazkenean 5 urte bete zenituelako. Muxu haundi bat etxeko en eta lagun en partez.



Iritsi dira 6 urteak! Zorionak gure etxeko **mutilari**!



Zorionak, **Jon**!! Asteazkenean 6 urte! Patxo haundi bat etxeko en partez!



Zorionak, **Lan-der**! Maiatzaren 31n 2 urte beteko dituzulako. Gurasoen eta bereziki Ikerren partez.



Zorionak, **Iñigo**, zure lehen urtebetetzean. Etxeko en partez.



Konturatu orduko 10 urte gure mari-matrakak! Zorionak, **Sare** eta patxo haundi bat etxeko en partez.



Zorionak, **Laiene**, 6 urte. Izugarri maite zaitugu. Amona, guraso, ahizpa eta osaba-izebak. Egun zoragarria igaro.



Badatuz 4 urte txoak. Zorionak, **Intza**! Etxeko guztion partez.



Zorionak, **bikote**! zuen 50. urteurrenean. Jarraitu horren ondo urte askotan, Oh-Marijo_xuxan_pexe koadrilaren partez.



Zorionak, **aittita eta amama**, jarraitu hain zoriontsu izaten. Jon, Roke eta Julenen partez.



Zorionak, **Felix Etxeberriak eta Lolita Canalesek** 60 urte egin dituzte elkarrekin, ezkondu zirenetik. Biba zuek!!



Zorionak, **Naroa eta Aritz**! Honez gero, 11 urte. Ondo ospatu familiako en partez.



Zorionak **Ane**!! Jada 6 urte handi. Patxo handi bat!

Erretratatu bakarreko agurra: 4,50€.
Argazki bikoitza: 7€. Hirukoitza: 9€.
Hiru lagunetik gorako taldeak: 15€

ELGOIBARKO IZARRAKO
BAZKIDEENTZAKO PREZIOAK

Erretratatu bakarreko agurra: 3,50€.
Argazki bikoitza: 6€. Hirukoitza: 8€.
Hiru lagunetik gorako taldeak: 12€

Uzuri ELGOIBAR - DEBA optika audio

www.uzurioptika.com

San Francisco, 21 - Elgoibar
Tel.: 943 793 358

BA AL DAKIZU ENTZUMEN GALERARIK DAUKAZUN?
ENTZUMEN AZTERKETAK DOAN HERRITIK ATERA GABE

IRAZABAL clínica dental

Ainhoa Zulueta Odontóloga

Abontzeak eta berriketa: 8:00 eta 22:00 ordu
Kapazitateak: 10:00 eta 14:00 ordu

Familiaren Osasuna

Zure familiaren ahoaren osasunaz arduratzen garelako

Gutaz fidatu eta jarrai iezaguzu

Facebooken: Clínica Dental Irazabal | Etsa twitterren: @Clinicairazabal

FINANTZIAZIO BEREZIA. Abontzeak ekonomiko handiak eta finantziario ezin hobekak. GALDETU

IRAZABAL clínica dental

Julian Etxeberria, Nº 12 - 1º - 20600 EIBAR
Tel.: 943 20 85 52 - www.clinicairazabal.com

A. Garate

Era guztietako igeltseritza lanak egiten aditua

angelmgarate@gmail.com

Santa Ana kalea, 28 beheka - 2. zkia - 20870 Elgoibar

610 226 651

27 BARIXAKUA

09:30-21:30 Elikagaien Bankurako janari bilketa. Gizarteratze Mahaia. BM supermerkatuan.

17:00 Iban 2-dean erronka solidarioa. Kalegoen plazatik.

20:30 Kontzertua: Debabarreneko Orkestra Sinfonikoa. Herriko Antzokian.

28 ZAPATUA

9:00 Igeriketa eguna. Elgoibarko Igeriketa Taldea. Olaizaga Kirolegian.

9:00-14:00 Baserriko produktuen salmenta. Kalebarren plazan.

09:30-21:30 Elikagaien Bankurako janari bilketa. Gizarteratze Mahaia. BM supermerkatuan.

11:00 Pintxoak. Elgoibarko baserri eta harategietako produktuekin. Elgoibarko Izarra. Kalebarren plazan.

11:30-13:30 Robotika jardunaldiak. Lekuederren.

12:00 Kale kantariak. Kalebarrenen.

12:00-14:00 Artile tailerra. Kalebarrenen.

14:30 CD Elgoibar paella jana. Maailan.

Eguerditik arratsaldera, Ganadu erakusketa. Aita Agirre plazan.

22:00 Antzerkia: *De Cuerpo Presente*. Mendaroko San Agustin Kulturguneko areto nagusian.

29 DOMEKA

10:30 Familia Eguna: Mendi martxa, jolasak, dantzaldia, magia eta jatorduak... Elgoibarko Izarra (Udalaren laguntzaz). Idorbe auzoan.

10:45 Autobusa Donostiara, errauste plantaren aurkako giza-katera. King Kong-etik. Izen ematea: Jai Alai tabernan.

31 MARTITZENA

18:00 Literatura tailerra. *La Extraña* (Sander Marai). Hizlaria: Consuelo Carrera. Gotzon Garate Udal Liburutegian.

1 EGUAZTENA

18:45 Autobusa: Tolosako Kapitolioko Orkestra Nazionala eta Donostiako orfeoia. Kursaallean. King Kong-etik.

19:00 Herri Eskolako ikasturte bukaerako jaialdia. Eskolako patioan.

2 EGUENA

19:00 Herri Eskolako ikasturte bukaerako jaialdia. Eskolako patioan.

3 BARIXAKUA

18:30 Pirritx, Porrotx eta Marimotots.

atzak
taberna
San Roke 28, behea
943 531 301 / 646 443 183
Bazkari eta afari bereziak ematen ditugu

ORBE
PERTSIANAK EGITEN DITUGU
TOLDO MOTA GUZTIAN ADITUAK
Karabixa, 1 - Ermua
Tel.: 943 179 860
www.toldosypersianasorbe.com
persianasorbe@gmail.com
TOLDOAK ETA PERTSIANAK

K.E.Y. hizkuntza akademia

Trenbide kalea, 19, behea - Elgoibar
Informazioa eskatzeko, deitu:
943 743 044 edo 653 825 606

UDAKO IKASTAROAK

Ekainaren 27tik uztailaren 22ra



Cambridge Unibertsitateko azterketarako batzordeko kidea ES438

- ◆ Haur, gazte eta helduentzako eskolak, orokorreen.
- ◆ Cambridge azterketen prestakuntza.

2016-2017 ikasturterako matrikulazio epea zabalik

- ◆ Haurrak eta gazteak, ingelesa, frantsesa eta alemana.
- ◆ Cambridge azterketen prestakuntzarako talde bereziak.
- ◆ Laguntza eskolak: Lehen Hezkuntza, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza eta Batxilergoa
- ◆ Helduentzako klase orokorrak



Iosu Juaristi

Ainhoa Lendinez



Aurtengoa epikoa izan dela diote. Adorearen, ahaleginaren, heroikotasunaren ondorioz, goratzeko modukoa. Goizeko 09:00etan epel zen Zegaman, sargori ere bai, tarteka. Eta iragarrita zegoen arren (iragarrita baitzegoen), lasaitu egin ginen denok, korrikalariak naiz ikusleak. Bi orduren buruan iritsi ziren aurreikusitako haizeak, euriak eta hotzak. Kanean harrapatu izan bagintu, gaitzerdi; baina Aratz-Aizkorriren maldetan ginen, ausarki korrika, eta berri ere, mendiak bere legea ezarri zuen. Ni neu ere gona moztetan harrapatu ninduen lagunaren zain Aizkorri, eta autoan ahaztutako galtza luzeez oroitu nintzen. Baina Alberto Zerainek egun batzuk lehenago Dhaulagirin pasako zuen hotzaz ere gogoratu nintzen. Eta iaz lagun batekin izandako eztabaida etorri zitzaidan gogora: mendi lasterkariak mendizaleak ote dira? Ko-

rrikalari asko ikusi nuen igandean Zegama-Aizkorri; mendizaleak, ez horrenbeste. Zorionak amaitu zutenei, eta zorionak lasterketa utzi zutenei. Tontorra pastelaren ginda dela esan zuen behin Ochoa de Olzak, eta gindarik gabe ere, pastel osoa jan litekeela. Gure esku egon izan balitz, eguzkia erosiko genuen iganderako, baina zorionez, mendia eta eguratsa ez daude gizakiaren esku. Haserre zen Aizkorri igandean. Ohiko bakea hausten ari gintzaizkiolako zela ere pentsatu nuen tarte batez, hezurretarainoko hotzak ere ez baitzituen isildu Aizkorriko oihu eta zintzarriak. Hori bai epikoa. Mendian oihu egitea zatarra dela esaten ziguten txikitari, mendiarekin adeitsu izateko, isilik joan behar genuela. Ahaztu egin nuen igandean, eta ni neu ere munduko afizio onenaren parte izan nintzen, eztarria urratzeraino. Ikasbide ezin hobea izan da 2016ko Zegama-Aizkorri: munduko mendi-lasterketa onena. Mendikoa. Eta mendiak beti jarriko gaitu zorionez geure lekuan, gaur ez bada, bihar.

*“2016ko Zegama-Aizkorri:
munduko mendi-lasterketa onena. Mendikoa”*

Ekitaldiak

Irakurle aurreratua

Zozketak

Denda

berriarekin zuzenean

berria berri

Orain

berria *laguna*

gehiago da

> berria.eus/berrialaguna

BERRIAlaguna bazara

Sortu kontua

eta gozatu abantailez!

berria.eus/berrialaguna

Zure ekarpenari esker,
aurrera goaz!

berria

mundua-euskarari-emana



ROBOTIKA

DIBERTIGARRIA

Elgoibar, maiatzaren 28a
Lekueder 11:30-13:30

DOAN

TAILER TEKNOLOGIKOEN ERAKUSKETA

Elgoibarko tailer teknologikoetan parte hartzen duten ikasleek egin dituzten lanen erakusketa.

11:30 - 13:30

7 - 11 urte

TAILERRA: GAILU ELEKTRONIKOEN PROGRAMAZIOA

Kontrol algoritmoak sortuta, LED argientzako kolore eta mugimendu efektuak egitea.

Parte hartzeko

bit.ly/RobotikaErakusketa

(opuntatzeko azken eguna, maiatzak 26)

1. saioa: 11:30-12:30 (8 ikasleko taldeak)

7 - 9 urte

2. saioa: 12:30-13:30 (8 ikasleko taldeak)

10 - 13 urte

TAILERRA: ROBOTIKA

Robot programagarriekin lehenengo harreran izatea, sentsoreen erabilerari eta informatika-programazioari buruzko oinarrizko nozioak ikastea, era bisual eta errazean.

Parte hartzeko

bit.ly/RobotikaErakusketa

(opuntatzeko azken eguna, maiatzak 26)

1. saioa: 11:30-12:30 (8 ikasleko taldeak)

7 - 9 urte

2. saioa: 12:30-13:30 (8 ikasleko taldeak)

10 - 13 urte

MINECRAFTI BURUZKO HITZALDIA

Hiru dimentsioko testurak dituzten kuboak erabiltzen dituen eraikuntza-jolasa. Horri esker, ingurua aztertu, baliabideak eskuratu eta hainbat erabilera dituzten objektuak sor daitezke. Jolasak berezkoa duen oinarrizko gaia menderatu ostean, programazio eta sormen maila handiak lor daitezkeela azalduko da bertan.

Feria zabalik dagoenean, hau da,
11:30etik 13:30era, edozain ordutan emango da informazioa.

Gurasoentzat



elgoibar
biZi-biZiXal



Gipuzkoako Foru Aldundia
Berrikuntza, Lanak, Enpleguak eta Talentuen Departamentua
Departamento de Innovación, Ciencia, Investigación y Talento

ikasmina:

Opusculos, libxten duen mundua.
Opusculos, un territorio que aprende